

EUSKALTEL TALDEAREN LANeko SEGURTASUNARI ETA OSASUNARI BURUZKO POLITIKA

Euskaltel Taldeak, gizartearekin eta ingurunearekin konprometitutako enpresa bat denez, bere Kudeaketa Sisteman integratua du politika hau, laneko segurtasunari eta osasunari buruzko helburuak betetzeko erreferentzia-esparru gisa.

Politika horren bidez, gure produktuak, zerbitzuak, lan egiteko erak eta kudeaketa-sistema etengabe hobetzeko konpromisoa gureganatzen dugu, alor guztietan hobeto jarduteko. Konpromiso hauek bereganatzen ditu Euskaltel Taldeak:

- Segurtasun eta osasunerako arriskuak identifikatzea eta ebaluatzea, kontrol-neurriak eta lehenetsunak ezarriz, laneko istripuak eta gaixotasun profesionalak saihesteko.
- Aplikatu beharreko legedia, araudia eta gainerako baldintzak betetzea, bai eta kudeaketa-sisteman hartzen ditugun beste zenbait konpromiso ere.
- Osasuna eta segurtasuna gure jardueren osagai bihurtzea, bai jardunean, bai kudeaketa-prozesuetan, bai lan-metodologietan.
- Segurtasunaren eta osasunaren alorreko kudeaketa-ziklo osoan, hauek bermatzea: konpainiako profesionalentzako eta haien ordezkarietarako informazioa, eta kontsultak egiteko eta parte hartzeko aukera, lan-ingurune seguru eta osasungarriak bermatzeko.
- Taldeko profesional guztiak laneko segurtasun eta osasunari buruzko gaietan trebatu eta kontzientziatu daitezen sustatzea, eta kultura prebentiboa bultzatzea.
- Ezarritako segurtasun-arauak bete ditzaten eskatzea hornitzaile eta kontratistei.

Politika hori gure jarduera, produktu eta zerbitzu guztiei aplikatu behar zaie, gure lantoki guztietan. Halaber, erakunde guztiari jakinarazi behar zaio, baita akziodunei, alderdi interesdunei eta, oro har, jendeari ere, eta berrikusi egin behar da, aldizka, Euskaltelentzat egokia dela egiaztatzeko.



Jose Miguel Garcia Fernández jauna
Kontseilari delegatua